
# MENDIAN GORA HARITZA



Xabier Amuriza Zarraonaindia (1941 Etxano, Bizkaia)

*Doinua: Mendian gora haritza*
*Neurria: Neurri berezia. Sei puntukoa*
*Testuaren iturria: Badok, Berriaren Euskal Musikaren Ataria.*

*Bizitzari jarritako sorta.*

*Kantua, doinu malenkoniatsuan, Imanol abeslariak plazaratu zuen "Iratze okre geldiak" diskoan (1982 IZ). Mikel Urdangarinek doinuari esperantza eta bizipozaren indarra eman zion "Margolaria" CDan (2017 Elkar).*

1 Mendian gora **haritza**
ahuntzak haitzean **dabiltza**
itsasoaren arimak dakar
ur gainean **bitsa***.
Kantatu nahi dut **bizitza**
usteltzen ez bazait **hitza**
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa **banintza**.

2 Euskal Herriko **tristura**
soineko beltzen **joskura**
txori negartiz bete da eta
umorez **hustu da**.
Emaidazue **freskura**
ura eskutik **eskura**
izarren salda urdina edanda
bizi naiz **gustura**.

3 Euskal Herriko **poeta**
kanposantuko **tronpeta**
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari **topeka***.
Argitu ezak **kopeta**
penak euretzat **gordeta**
goizero sortuz bizitza ere
hortxe **zegok eta**.

4 Mundua ez da beti **jai**
inoiz tristea ere **bai**
baina badira mila motibo
kantatzeko **alai**.
Bestela datozen **penai**
ez diet surik bota **nahi**
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo **lasai**.

* ***bitsa*** = *aparra* ***topeka*** = *kolpeka (ahariak aritzen dira topeka, talkan)*